

BERANGO haur eta nerabeen herria



BERANGOKO
UDALA



Berangoko Udalak Berango Umeen Adiskidea den Hiri gisa aitortzea helburu duen prozesua jarri du abian. Aipatutako zigilua UNICEFek ematen du eta toki mailan neska-mutilen alde egiten den lana aitortzen eta balioa ematen dio

Zertan ari gara?

Helburuetako batzuk:

- Hurtzaroaren eta nerabezeroaren errealitatearen diagnostikoa egin
- Haur eta Nerabeen eskubide eta beharren araberakoa den Hurtzaroaren eta Nerabezeroaren Udal Plana idatzi.
- Guzti hau koordinatzeko mahaia abian jarri eta udalerrri mailan
- Haurren eta Gazteen Partaidetzarako Organo Iraunkorra funtzionamenduan jarri.

Nola egingo dugu?

Berangoko neska-mutilak eta nerabeak zein haiekin lan egiten duten edo haiekin harremana duten eragile ugarien (hezkuntza-zentroa, udaleko zerbitzuak eta ekipamenduak, elkarteak, kirol-taldeak...) parte-hartzea txertatzea. Partaidetza hori une ugaritan eta hainbat bidetatik egitea aurrez ikusi dute (galdetegiak beteta, taldeka edo banaka elkarrizketak eginda, informazioa eskatuta...).

Haur eta nerabeekin... [8- 17 urte]

Hauen kasuan, galdetegi bat betetzeko eskaera aurreikusita dago. Galdetegia, hainbat bidetatik helaraziko zaie: Berangoko eskola, haur eta nerabeei zuzendutako udal zerbitzu batzuk (ludoteka, ludokluba, neguko negulekuak...), baita herriko elkarte kultural zein kirol klub bidez. Galdetegi honetaz gain, hainbat ume eta nerabeekin Berangoko gai batzuei buruz duten iritzi eta proposamenak ezagutzeko zenbait dinamika eta tailer gauzatuko dira.

Helduekin...

Talde elkarrizketa batzuk burutzea aurreikusten da. Elkarrizketa hauek egiteko aukeratuko ditugun profilak, familia mailan ume eta nerabeez arduratzen direnak, ume eta nerabeen heziketa prozesuan parte hartzen duten profesional edo boluntarioak, hezitzaileak (arlotan formal zein ez-formalekoak) eta ongizate arloko profesionalak; hala nola: gurasoak, hezkuntza zentroko arduradunak, udaleko zein Uribe Kostako teknikariak, ume eta nerabeak parte hartzen duten kirol klub eta kultur elkarteetako arduradunak.



Berango

